

## MEHETEGIKO? NAUSTA !

Agertzekoak:

Andere Rhodendron : 66 urthe  
 Andere Rezeda : 64 urthe  
 Andere Roza : 62 urthe  
 Kattalin : 55urthe etxeko neskatoa  
 Joana, 24 urthe, auzoko nezkatoa

Ager-tokia

(Barne bat guti eta aski plantakoa : ez eder ez itsusi.  
 Halaber hiru futila, lau kadira.... Armaritte bat choiko batean, nahain bat erdi-erdia....

## I

( Kattalin , lumasko jasfe bat erkuari da erhauta khentzen,  
 " Mehetegeko chakurra " Kantatzen duela bainan airea bakarrik )  
Kattalinek -( Kantatzerik, gelditu da eta beharrria atherat buruz luzatzen da:  
 duela ) - Jes ! Zerbeit gertatu bide zaio !... Usain hemen dut  
 hora, nere hiru mutchurdinak atherratu orduko !... Bai segur,  
 arbeit baduke !... ( Beriz hasten da kantuz aire berean, hitzak  
 erran gabe.... Gero:) Hiruak eta erdiak !... Oren lauunden bat  
 jadanik nere hiru mutchurdinak joanak direla !... Zer sorgin  
 ari zaiz bertze hora ? Atzoz gerez ez dudala ikusia !... Luze  
 heldu da !... Ez da bederen erritu ?... Bai...Bai...ez da bertze-  
 rik ! Eri da !... Eri da !... Gaiche Joana ! Ez ahal da hiken  
 agian holako neska plantakoa ! ( Hiruak nigarez badoa atherat....  
 heldu da gibelerat kantuz bethi aire berean) ... Norik daki?  
 Behar bada batare ez da eri !... Ah ! orai orhoitzen bainaia!  
 Bazkaltiarak bazituzten egun ! Joanak berak errana atze! Non  
 othe nuen burua ?.... Au !...etche opesa da bederen hura!...  
 Badu etchekandre bat pastiza bezain ona !... Eta zembait bazkeri  
 ez dute emaiten !... Astean bizpahiru, segurik !... Bazkari batek  
 ondar onak uzten bethi ! Biba zu Joana ! Zuk ez duzu nik bezala  
 goserek jasaiten ! ( Kantuz aize bera)... -Jes! etche hundan  
 sathuz geroztik neskato, aire hori baizik ez dut gogoan eta espainetan : ( Kantuz emaiten ditu hitz hauek )- "Mehetegeko chakura  
 zangoz -errainer maturra " (Bere zangoerraminer behatus )-  
 - Ez naiz Mehetegeko chakurra baina Mehetegeko nezkatoa, eta  
 badut beldurra , hemen egoiten banaiz zombeitz aste gehiago, zango-  
 errainak haziko zaizkitan makurtzen !.... Segur naiz gure hiru  
 mutchurdinak kantu horri ez dutela sekulan entzun !... Behar diotet  
 kantatu egun horitarik bates!... Komprenituko othe dute ? Ai !  
 frikunak, aski habiliak dire bai ez komprenitzeleko ez komprenitu-  
 arena egiteko ere bai !... Ba othe dakit kantu guzia gero ?....  
 Hea ! lehen kobla: (airea bakarrik emaiten du)...- Bai hori  
 badut !... Bigarrena(airea bakarrik).... Hori ere bai !...  
 Hirugarena (airea bakarrik) Hamabi kobla bazituen ene haurraren  
 an kantu horrek ! Ez ahal du bihirk galdu chahartzean ! Cha-  
 harrek hai aise galtzen dituste bilakatuta hortzak!... Orhoit naiz  
 bazela bat, kobla bat gero , azkenaren sintziniekorrak naski, hum!  
 hum !... Hala halako ! Ez dakit erraiten ahalko dudanetz hora !  
 Eta hora dut futcho ! erran behar gorriena !... Bada kobla hortan  
 hiz bat , beharri mimerrek aditu nahi es dutena !... Zertako  
 ethe ? Hitz horrek erran nahi duen gauza ez dutelakotz aditzen  
 ahal nik uste ! Zer bitchikerria haastik : delako hitsak arrabetza

Mcheteziko Nausia (Suite)

ba eta usinik ez ! Eta delako gauzak usaina ba eta harrabotsik ez !...  
 ( Kantuz a ire berean, hisak errap gabe , asken bi bertsuak bakarik  
 hitsekin ) - Etchekandreari gantza , nagusiarri azken putsa !... Oi ! Bi !  
 si espakatu zaizt !... Ba ! erranez geron ez da hain itsusia !... Erranex  
 diotet bai hira mutchurdiner ere !... ( Irriz dago bera )

II

Joanak - ( Gordea oraine ) - Kuku ! Kuku !....

Kattalinek - To ! kukua ere kantuz ari ni bezala !... Ikuas bortz soseko bat beder  
 re badudanetz sakelan !?;....

Joanak - ( agertzean irriz ) Bortz soseko bat sakelan zertko hori Kattalin?....  
Kattalinek - Hor zure beraz Joana ?... Bazinaki nola berandetsi sintutan !....

Zer baxkaria ahal zintutzen !... He !...

Joanak - Bai Kattalin, ba !... baxkari bat gaitza !.... Bainan ez dautuzu  
 errana bortz soseko hura zertako zinuen !...

Kattalinek - Zer Erran zaharra ez baitakizu? Kukua lehen aldiakoz aditzarekin  
 kantuz, bortz soseko bat bederén balin baduzu sakelan, urthe sosa segura  
 duzu!... ( Sakela guziak bilhaturik ) Ardit bat ere ez dut! Chahu naiz  
 urthe guzikotz!... Kukua ihartua! Madarikatua!... Kantuz hasi behar ere  
 egun!...

Joanak - Ez khecha; Kattalin!... Etzen Kukua! Ni nintzen athetik ari!... Ez nazu  
 madarikatzen, ni ?

Kattalinek - Ez gaichoa Joana, ez!... Benedikatzen bai!... Zu zare mandu hantan  
 nere zorien bakarra, nere iguskia, nere ilhargia, nere izarra, nere ze-  
 rua!....

Joanak - Askia Kattalin, aski!... Etziatu, ori; andere Rezedak aditzen!...

Kattalinek - Andere Rezeda!... Ez naiz sekulan husarzen ahallo izen hori, es :  
 bertze bier : Andere Rezeda, Andere Rosa, hau oraine nombeit han !....  
 eta hirugarrena ? Andere Rhodindon !....

Joanak - Ez da Rhodindon ez gero !...

Kattalinek - Badakit !... Aldi guziez mezkealatzen dut izen hori eta nere  
 hitu mutchurdinek eratsiatzen nata !.... Bainan berriz aditu produkto  
 shantzia dut !.... Nola da chuchen ?

Joanak - Andere Rhododendron !

Kattalinek - Rho-do-den-don !

Joanak - Ez didon !... Dendron !...

Kattalinek - Dendron !... Rhododendron!!!!.... Ez da hola orai ere !....  
 Bainan erradazu zuk non izanak diren izen piperreka hoi en biltzen ?...  
 Ez dut egundaino holakorik ikusi almahakan !.... Nongo zeruan dire santi-  
 hoik ?...

Joanak - Ez dire zerian !.... Baratzetan dire !... Baratzetan !....

Kattalinek - Baratzetan !...

Joanak - Hiru loren izenak dire : Rezeda, Roza eta Rhododendron!

Kattalinek - ( irriz urratua ) Hiru loren izenak ? Ha ! ha ! ha ! ...  
 Gure hiru mutchurdin lore politak !.... Ha ! ha ! ha !.... Rhodindoa  
 oraine nombeit han ez baisait idurisen ere lonez baten izena dela !  
 Ha ! ha ! ha !.... Dendarik ez da aita baratzezaina datuen seguna !....  
 Ha ! ha ! ha !.... Icho ! Adieu duzu ?.... Ez ditut beden nere bi lo-  
 reak hor !( Badoa atherat..... gibelerakoan ) - Ez, ez ! etziren  
 hek ! Harrabotsik ez dute errekorek usain tzarra !.... ( Arte hortan  
 Joana itzuli da , ustez hiru mutchurdinak ziren heldu )

III

Kattalinek - ( zoko guzietarat behatus ) - Zer egin da Joana? Gaichoa izitu  
 da !.... Etzen bada zerik !... ni ez nute izitzen batzue nere hiri

Nehetegiko Nausia (Suite )

lorek ! To! kadira hunen aspan zer da hau ? ( oihal batzen koropilatu rik zerbeit jateko : hartzen du eskuetan ) .... Zein plantakoa den haatik Joana hoñri ! .... Egun ere ekarri daut baskarri ondarreria zerbeit ! .... Oilo ichter bat ! Oilachko hegaz bat ! .... Ongi-ethorri segurki eta halere ! .... Egin dudan baskarriaren gatik , badut zerbeiten beharr Ogia ere ez du shantzi ! Badaki ala bainana armairu guziak gakotz dituela hemen!... Pegarra baka rik libroan !.... Hauk jan ondoan, hari ere ; hitz bat erranen diot beharri- ttuturak !

( Jaten hasi da , bizkarrez atxeari eta fotil batean jarriñik )

IV

Rhododendronek - (harrabotsik gabe sartua da :: Kattalin zer ari den chartzearekin , khechu khechua ) - ha ! ha ! kattalin atxemaiten zaitut erdis erdi !...

Kattalinek -(higitu gabe ) Bai andere Rhodindon!

Rhododendronek Willa aldiz errana dautzut ez naizela Rhodindzon ! Bainan Rhododendron.

Kattalinek - Luzegi da nik ontza erraiteko !

Rhododendronek - Errazu Rhododendron

Kattalinek - Erra- Rhododindon ! ( armanozki . )

Rhododendronek - Ez dindo ... ! Dendron !....

Kattalinek - Dendron !

Rhododendronek - Erraiten bazinaut Andere !.... Etzaizkitzu ez , espainak makurtuko erranikan ere Andere !....

Kattalinek - Andere !.... Baduzu aski hola ?

Rhododendronek - Zer ari zare hor ?

Kattalinek - Jaten !

Rhododendronek - Jaten !.... Baduzu burutik !

Kattalinek - Burutik ez !.. sabeletik!.... Zer uste duzu ; gosak hil nahi naizela ? Ez ahaz badut segurik ez !

Rhododendronek - Nondik athera ditutzu jateko hoik ?... Armairioak ontsa hetzisk gizintuan , gure ustez !

Kattalinek - Zuen armairuetan ez da sekulan holako oilo ichterik sortu ez sartu ( sudurraren azpian emaiten dako oilo ichtera ).... Sobera zikoitsa zaizte ba hiruak !... Ez dut , zuek bezala usaina eta ihintza aski bizitzeko !....

Rhododendronek - Usaina eta ihitza ,zer erran nahi duzu?....

Kattalinek - Nik badakit zer erran nahi duan !.... Baratzerat zoazi ikusteko zertarik bisi diren loreak ! ( Irriz dago . )

Rhododendronek - Ez da haatik ez hunatik!... Burua n(h)asia du hunek!.... Horra zer sobera jatea !... ( Hurbildurik oihu egaten dio . ) : Kattalin !... ( hau ez baita higitzen ere , befriz ) Kattalin !....

Kattalinek - Zer duzu hola oihuca ? Ez naiz gogora !... Zer nahi duzu ?

Rhododendronek - Mokonesa shantsirik joanak baiginen hiruak , jauts adazu bat gainetik !

Kattalinek - Bat bakarrik !... Bedera !...

Rhododendronek Bat erran dautzut eta ez bedera ! Hiru mokonesen higatzen ari- ko gare , batekin egiten ahaz dugularik hiruek ! ( Kattalin atheratu da ero kainu , oihala eta oihalaren barnekoak ahaitsi gabe )

V

Rhododendronek - Bai neska horrek badu zerbeit !.... Pollitak ginitazke burua

## Mehetegiko Nausia. (Suite )

-tik johan bazaiku arras !... Pauerat beharko ginuke igorri,!... Nere ahizpa Andere Rezeda eta Andere Rozekin beharko naiz mintzatu sarri berea Pauen gure gain litake alabainan !..... Hobe dugu kamporat emaitza-lehen bai lehen !.... Kamporat emaitza !... Bai eta gero? Non atcheman dugu nezkato bat hau bezain merke ?... Ez da aise, izanen! Holako diru keta galdatzen dute oraino nezkatoek ! Hau ere pagatzen dugu bai hogoi-ta bortz libera hilabethean !.... Bada zerbeit !... Bainaz bertze batek galda tuko dauzku hogoi-ta hamar segurik eta behar bada hogoi-ta hamabi !... Haue da ichiorioa !.....

## VI

Joanak - ( Rhododendron ikusiria harritua ) - Barkatu othoi, andre Rhododendron !..... Zer nuen....

Rhododendronek - Zu zare hor Jaana? Zuk bederen ontsa erraiten duzu nere izena !.... To !... hain chuchen gausa bat galdu nahi natzun aspaldi huntan !... Gure artean dagola haatik !....

Joanak - Zerbitzari andere Rhododendron !

Rhododendronek - Laketua zare naski suze hortan ?

Joanak - Bai, bai ezin hobekin !

Rhododendronek - Heta...Eta... zombat duzu ilhabetean ?

Joanak - Hiru ehun libera !

Rhododendronek - Hi...hi...hiru ehun libera? ( flakatsu bezala erortzen da i fofilia batean, Joanak laguntzen du bere baitaratzen ) - Hiru ehun libera !... Joana gaichoa ez zazula othoi hokakorik aipha erga Kattalin !.... Chahu ginitazke !

Joanak - Bainan badaki aspaldi !

Rhododendronek - Ba...ba...badakiela !... Ez dugu segurki kamporat emanen!.. Nani duena egiten ahalko du, ez dugu Pauerat ere igorriko!....

## VII

Kattalinek - (sartzean) - Horra zuen mokonesa, Andre Rhodindom... To !... orai ere gai zki erran dut !....

Rhododendronek - Berdin du, Berdin du Kattalin gaichea !

Kattalinek - Holakorik ez dantzu behin ere erran !.... Deno dema! Andere Rezedo eta andere Roza zure beha balin badaude zintzatzeko, pekada sudarraren puntan dukete aspaldi!....

Rhododendronek - Pekada? Zoin pekada?...

Kattalinek - Ez bi hegalkilako hora ez segur !.... Bertze bat!.... Ez jateko ez edareko on ez den hora !...

Rhododendronek - ( ateratzean Joanari ) Ez, ez du Pauerat ere igorriko !

## VIII

Joanak - Zer egin diozu Kattalin? Deusik ez dut komprentu haren solasatan!.. Kattalinek - Zoin solasetan?

Joanak - Galdu dant zombait irabazten nuen !.... Eta erran diotalarik asaspaldi dakizuna, hiru ehun libera! hasi zait....

Kattalinek - Aditu dut! Ez nutela kamporat emanen !.... Ez baitute ni bezain merkerik hatchemanen !....

Joanak - Bainan Kattalin erradazu bida zertako zauden hemen soldatza mehe huntan bertze mombeitz gehiago bazinzelarik?

Mehetegiko Nausia (Suite )

Kattalinek - Erranen dantzut Joana beharri chlorat !... Nehri ez salatzekotua  
he !... Orai arte egon naizen toki guzietan sehi kondu nintzen, hemen et  
etxekandre daiz!.....

Joanak - Zu ?...etc-hekandre heman ?.....

Kattalinek - Bai, etxekandre....ni....hemen!.... Hore hiru mitxurdin-loreak  
sobera zuhurrak dire nezkatt bat gehiagoren emaitako !... Horra zer-  
tako ez nuzen kamporat esan nahiko sekula !... Nahi dudana egiten dut  
txiekin, gaina hartua diotey, nik dut manatzen heman!....

Joanak - Nahainean salbu nazki ?....

Kattalinek - Nahainean salbu bai !.... Hori dut nere itzal bakarra!... Mortan  
ez da deus egitekorik! Ez guredeiskak Jainkoak, ez debruak, ez nik, ez  
diote gure moltza idek-arazten shal !.. Nahi lukete sabala ideki haiztun  
ukaldika!... Badakigu ostien baskaltzeko zer jan duten ?

Joanak - Jainkoak daki !...

Kattalinek - Nik ere badakit !... Arreztze bat !Arreztze bakar bat hiruen-sa-  
artean!.... Khuchuan !... Aldizka bustiz gorringo guzia jan di te  
; Iahenik eta gero churringotik gehiena !....

Joanak - Zertako ez churringo guzia ? Aia ez dire churringokoak ?

Kattalinek Milikatuko zuten bai hura ere !... Beharrak Andre Rezeda orheitu-bei-  
baitsa hor nintzela !... Hora nere egungo bazkarris beraz: churringo niko  
bat kichiku guziarekip !.... Beinakien beharrak zu jitekoa zinautala zerbeit  
ondar onekin!... Zu ez bazinitut , nere lore potentak aspaldi utziak nin-  
duzken hazitako !.. Hazitako!.... Hazi politikak Jainkoaren den !... Tomate  
haziak badire bederen !....

Joanak - To !...orhoit-arazten nuzu tomate egiten ari garela : botoilak suaren  
gainean ditut . Ez shal zait bihirk hautsi !.... Banoa behako baten  
emaiterat eta heldu naiz abain !....

Kattalinek - Zoazi, zoazi, Joana !... Berehala arts.....

## IX

Kattalinek - Zer artho paska , Joana hori!.... Langilea eta bihotz ona !....  
Iana baizik ez du gogoan!.... Ba, nik ere ba !.... Nik ez baitut hogoi-  
ta borts libzarena baizik egiteko ilhabethean !...  
(Mehetegiko chakurra kahtatzen du hitzak erran gabe )

-Kantu hau ere bethi gigoan dut !... "ai eman behar dakotet hanekagarren  
hura ere !.... Pollitena da eta !....

(Kantatzan dituela azken bi bertzuak)

" Etxekandrei gantza, nauskari azken putsa..... Gaicho hizkurrak hozpitz  
herren egiteko indarrak aski ukai baitzuen oraino ! Nik ere holatsu uts  
nezkete nere hiru etxekandrer ; hiruhtzat bat, eguerdiko aroltzea  
bezala !.... Ni baino lehen hilen baitire , chantza dute ! Hiltzean zer  
utziko etxe dautate ? Ahaide bili bat ere ez dute , ez hurbilik ez uxru-  
nik!.... Beren ontasunak nori uts dezakete niri baizik ? Baduteka au-  
sarki diru , etche eta ler !... Doi-doia Joaniari erraiten bainien  
etxekandre naizelakots naigola heman! Ez da egi-egia hori!... Erran behar-  
ke nion : egun batez etxekandre izanen naizelakots heman !.... Bainan  
hori ez baita polli-pollita , nehorri ez gbot salatzen shal nihauri baiziki.  
Egun batez aburatz izanen naiz!... "ai, ndere Rhodendon , Aberatz!....  
Adituko dut nik orduan andere Kattalin ! Zein ontsa doasun bi hitz hoik  
elgarrekin eta eskus-eskus !.... 5 kantuz ) "Nausiari azken putsa !...  
Etzen hanbatekoa hori , bainan nausi batentzat aski !.... (Kattalinek  
azken hauk; erraltearekin, sartu dire hiru mitxurdinak ).

Mehetegiko Nausia (Suite )

X

Rezedak -Zer sautzu nantzarentzat aski, kattalin ?

Kattalinek - Deus ez, deus ez, ander Rezeda ! Nere buruarekin ari nintzen !...  
Rozak - Zer ari zinen zure buruarekin ?

Kattalinek -Solasean, andere Roza !

Rhododendronek -Eta zer solas zinerabilan, ez bainiz ausartegi ?

Kattalinek - Zu ausartegi, autre Rhododendron Rhodindon?

Rhododendronek Rhododendron, kattalin ! Dendron eta ez dindon !

Kattalinek - Dendronnahila go baduzu, niri berdin saut... Dendron eta ez dindon !

Rezedak - Eta beraz zer zen zure solasa ?

Kattalinek - Jes! hala hala da!... Dehdon horrekin denak hanztten ditut eta hor

ez ikasten!.... Nere solasa etzen baitezpada solasa, kantu zen !....

Rozak - Zerkantuz air baitzin,?... Dohakabea zintzurraren higatzeko are!

Kattalinek - Hori era hola da !... Hemen ez da inahalaz deusik higatu behar !...

Ahokoak hasteko ez ditugu janarekin higatuko!... Bainan nere zintzurrak ez

du deusik hirriskatzen! Larru azkarres egina dut!... Eta, nahi baduzne, sar

ri charmelatuko dauzuet nere kantu pollita!;;; Lauak eta erdiak baitire

han egina dautzuet lehenik dute presa batna!...

Rozak - Baduzu burutik, Kattalin?... Dute presa batnu!... Ez dakizu duterik ez

duzula sekulan hartzen?...

Rezedak - Zainak alehatzen ditu duteak.

Kattalinek - Kafe ttotta bat beraz, bero beroa ?

Rhododendronek - Kafea eta bero beroa?... Beraz gabeko bi gastu!...

Rezedak - Badakizu, Kattalin, arratzalde, guziez gure krakada zer den? Kopa bat

ur garbis eta freskoas, ogi achaltto miko batekin !

Kattalinek - ( atheratzean ) Laster da hori!... ( Bere burua bezela...) Ai! zeruko ama ona!... Urthe guzian garizuma dugu hemen!... Jinen da lori Bazko ere neizbeit!...

Rezedak - Ez, ez! Ez ditake hola joan!... Neska zirtzil horrek gaina hanztzen ari daku arras!... Guk errana egiten duenean ere, zernahi errranka baizik ez dut egiten!

Rhododendronek - Egia zuk, Rezeda maitea!... Bainan zer egin ?

Rezedak - Zer egin ?... Kamporat eman! Rhododendron maitea, hatchemaiten ahal

bazinak auzoko joana bezelako bat!... Zer naska gisako, hora et umila!

Rhododendronek - Bai gisako et umila !... Bainan Rezeda maitea, badakizu auzoan

zenbat irabazten duen?.... Erraiten ahalko dudanetz ere ez dakit, hain da

izigarria!....

Rozak -Hogoi-ta bortz libera baino gehiago baititu ?

Rhododendronek - Uste nuke bri !..... Doi-doia jakina dut berak erranik!.....

Bainan sekulan ez dut erraiten ahalko!... Zintzurrean trebes geldituko saut!

Rezedak -Errazu erhielkin !

Rhododendronek - Ez dut erhi azki erraiteko !

Rozak - Eman ditzagun hiruen erhiak ( hiruek beren ezkuak atheratzen dituzte erhiak ontza ageri )

Rhododendronek -Hala ere ez da aski !... Hiruen artean hogoi-ta hamar erhi

ditugu bakarrik!....

Rezedak - Zangoetako erhi zombeitz emanez !... (oinetakoren khentzerat doa)

Rhododendronek -Ez du balio oinetakoen khentzea, Rezeda !.... Zangeak ez dituzu

beharrada garbiegiak !.... Edo galt erdiak chilo !... Eta bertzela ere ez

litake azki !....

Rozak - Zombat mila sorgin ditu ba Joank ,....

Rhododendronek -Ikusten dituzue gure hogoi-ta hamar erhiak ? Joank baditu

hamarretan gehiago libera oraino !

Mehetegiko Nausia ( Suite )

Rezedak - ( karkula egunik ) -zer !... Hi... hi... hiru....

Rhododendronek - Bai, hi... hi... hiru ehun libera !

( hiruak flakatuak bezala daude ahpur bat )

Rozak - Hi... hi... hiru ehun liberal!.... Eta gure Kattalinek hogoi- ta bortz!

Rhododendronek - Gauza bat arras bitchi zaut : gure Kattalin holako soldatan zertako dagon hemen, bertze nombeit gehiago balikelatik ?...

Rozak - Zertakotz ?... Maitegaituelakotz !... Hain apak gare parentzat !....

Rhododendronek - Kattalinek gu maite ?... Ez gaitu eta begietako zikina baino gehiago ikusten ahal !.... Ez bertze zerbeit da !.... Zer ?

Rezedak - Bilha dezagun elgarrekin !.... Kattalin zertako dago hemen?... Hemen lan guti, duelakotz ? Beraz alferkerriaz ?

Rhododendronek - Ez ditake erran aliferra dela ! Etcheko lanak ontsa egiten ditu eta badakit auzo Joana ere laguntzen duela bere lanetan!.... Ez diot deusik erran oihuka hasiko baitzitzaitan, bainan herehegun oraino haren churikiten egiten ikusia dut ?...

Rozak - Ha !... badakit oraino zertako dagon gurekin !... Gu bezala delakotz ! Ez du maite jatea !....

Rhododendronek - Jatea ez maite ?.... Gure zartain zaharrena bezain germana da-eta !... Doi-doia oraino, guze mokanesaren bilha jin naizelakotz, oile ichter baten jaten arizen !...

Rezedak - Oile ichter bat ?... Nondik atherraia zuen ? Berrogoci-ta hamar urthe segurik baditu bilerik ez dugula jastatu !.... Zure lehen komunioneko zen ori, Roza maitea ! Kattalinek ez ahal zuen haren ondarretik !....

Rhododendronek - Erraduzue bada zertako badon hemen? ..

Rozak - ( gogoetatua egon ondoan ) Badut, badut oraikoan !.... Ez delakotz sosari atchikia !....

Rhododendronek - Sosari ez atchikia Kattalin? ... Aldi guziez hilabetearen hamabortzetik hasten zaut nardatzen ere bainu !-- ilabetearen ondarra hurbiltzen ari dela errranka !....

Rezedak - Norik erranen dauku hogoi-ta bortz liberetan zertako dagon hemen?.. Icho !... hor dugu

Rhododendronek - Luze Kattalin, luze krakada hori !....

Kattalinek - Bai, ori, Andere Rhodindon.....

Rhododendronek - Dindon !...

Kattalinek - Dendron beraz !.... Batere uzte, gabea pegarra hutsa nuen !...

Bta Ithirria urrun !... Ura garbiago eta freskoago baizik ez duzu ~~ez duzu~~ izansen !....; artean mahainaren gainean eman ditu hiru kopa eta hiru esogi puchka )...

Rozak - Eta zuk Kattalin ez duzu ur chorta bat hartzen ? ... Arraz on da bazkarriaren beheitzi igortzeko !....

Kattalinek - Ba Andre Roza, ner bazkarriak ez du holako lagun beharrik beheitzi joaiteko !.... Bera joanen da segur !...

Rhododendronek - Eta hauche dire esogu puzka handiak!... Errekan nahi gaituzu eman nazki !... (hiruogi puchken erdiak emaiten ditu bazterrera)...

Kattalinek - Errrekak ere norbeir behar du bai, andere Rhododendron!...

Rhododendronek - Dendron !

Kattalinek - Dendron !.... Egun arras omore onean nai !.... Eta zuek jaten ari zaiztelarik, nahi dautzuet kantu chahar bat eman !.... (jartzen da)

Rozak - Mea ba, Kattalin !

Kattalinek - ( eztul bat egin ondoan )

Mehetegiko chakurra

Zangoz-errainez makurra,

Berga bat luze muthurra,

-Larrutik hurbil hezurra,

Urthe guzia barura,

-Zeren den toki chukurra !....

Rozak -

Mehetegiko Nausia (Suite)

Rozak - Gaiche chakurra !... Gero !...  
Kattalinek - Amak tikitik utzia,  
 Esherik gabe hazia,  
 Tripa errainer josia,  
 Ulich jaten hasia,  
 Churikek bere bizia  
 Hola derama guzia.

Rozak - Gichagaiche chakurra! ... Eta zer izen pollita Churiko !....  
Kattalinek - Shakur gaichea halakoz  
 Merke ase zutelakotz,  
 Tripa hutsik ilhun gagoz,  
 Pleiniz zagon egun orez,  
 Hatzka zangoz eta besoz  
 Nihon etzaiken kukusozi

Rezedak - Os ! eta nik ere ez ditut batere maite kukusoak !

Rhododendronek - Eta hain dire chitchi jaleak !

Rozak - Gero Kattalin !

Kattalinek - Ez baitzaizuet sobera ausatu nahi, banca azkenetarat !....  
 - Zombeit gau egun bakarrez  
 - Gorde egonik, heralez,  
 - Atherra zen jan beharrez,  
 Hamikatua nigarrez,  
 Estalia zaragarrez,  
 Lakastaz eta zakorrez .

Rhododendronek - Phu !zikin!... Aski hola, aski Kattalin !

Kattalinek - Ja !.. pollitenak orai dire eta !....

Sukaldean nehor ez da  
 Sartzen da chakur herresta,  
 Oilaskoa zen prest-prsta,  
 Zeren zen herriko phesta;  
 -Usain milik eta jasta,  
 Dena jaten du haseta.

Rezedak - Gormant errekitua !... Holakorik bedefen etzaiku gertatuko, oila-korik ez baitugu sekula !

Kattalinek - Zerbeit bada holako lanjeretik kampo izaitea ! Ba bainan gero?  
 - Etxeko-andre khechua,  
 Hor heldu da hats-hantua  
 "Jakur madarikatua,  
 Eta hor usu-usua,  
 Nik hauts-arteau bumua,  
 Egik hire; ordenua ! "

Rhododendronek - Ederki ! Ederki !... Biba etxekandre hura!... Nik ere  
 Nik ere berdin eginen nioñ sakur tzar hari !....

Rozak - Zer da ordenua ?

Kattalinek - Ez baitakizu zer den osdenua , andere Rosa ! Frantsesez testament erraiten da!.... Egina shal duzue he ? Churikok hasteko laster egin zuen berea, gaizoak !....

Ordenuak hau du beltza:  
 - Denen uztea bertzentzat !  
 Churikok badaki ontsa  
 Nori zer utz, nola pentsa :  
 Etxekandareari gantza,  
 Nausiari azken putza.

Rezedak - HO! ho! Kattalin , azken hori itsusia duzu!... Nausiari azken !!!!

Ho! Ho!

Mehetegiko nausia. (Suite )

Rhododendronek - Etchekandreak bederen zerbeit on ukam zuen !.... Bainan naisiak ?.... Azken....

Kattalinek - Ez dakit bainan nik daukat Churikoren gahtza ala azken putxa elgarren bethe zirela, erran beditska sagurik!....

Rhododendronek - Zoazi Kattalin, zoazi sikalderat !.... Altzaz Kitzu kopa hauk, hautsi gabe !.... Hain karrie dire !....

XIII

Rhododendronek - (Kattalin atheratu ondoan) - He!... He!... Zer zaizue?

Rozak - Kantu pollita haste hartan, bainan gero? ... Nausiaren azken....

Rhododendronek - Roza ez naiz kantuaz pintzo!.... Zer diozue Kattalinen maltzurkeriaz?....

Rezedak - Kattalinen maltzurkerria?... Zertap?

Rhododendronek - Zertan?... Ez duzue beraz deusik kompranitu?.... Ordeñua?... Testamenta?....

Rhododendronek - Ez duzue kompranitu zertako dagon kattalin hemen hogoitza bortz Liberetan?

Rezedak - Ez bateira!

Rozak - Mikorik!...

Rhododendronek - Esperantza baitu gure ordenua haren alde eginen dagula! Hots!... ditugun guziak hari utziko diozagula!....

Rozak - Zertako ez?.... Nori utziko ditugu bordin?.... Ez ditugu zorigaitzak gurekin eremaiten shalko!

Rhododendronek - Kattalini utz?... Sekula!... Sekula santan!... Nahia go hinduske hil aintzin denak jan hari utzi baino!.... Ha! Es!...

Sobera trufatu da gitaz!... Eginene dut nik-ere- gure ordenua eta ilusiko duzue!.... (Hartzen du paper churi bat, izkribatzeko zerbeit eta gero ahopetik, betze nehorik ez aditzeko gisan, bi shisper irakurtzen eta hiruak irriz daude.... Kattalin sartru da Rhododendronek ordenua mahaineko tireirrean gordetssarekin).

XIV

Rhododendronek - Elizariho ari baigire arratseko otheitzarren agiterat norbeir heldu bada/gu ikusi nahiz arrozu laster hemen gazzala!...

Kattalinek - Ontsa da, Andere Rhodindan!

Rhododendronek - Kazko tzarra ez bertzea!... Rho-do-don-dron!... Den-dron!....

Kattalinek - Ontsa da... ; dendron!.... (Atheratzen direshiru ahizpak Rhododendron khechu)...

-Zoazte!... zoazte Mehetegiko lora garda-tzaki!...

(Rhododendron bezala mintzo) : "Norbeit heldu bada gu ikusi nahiz!..." Zuek ikusi nahiz?... Nehorik etzaituzte eta ikusteh shal ere.....

XV

Joanak - (athetik) - Kuku!.. Kuku!...

Kattalinek - Bai segurki, hobeak dire kikutzeko!.... Zato Joan, sato nere iguzkia!....

Joanak - Ikusi ditut atheratzen eta lahak egintcheak batitut....

Kattalinek - Arratzeko otheitzaren egiterat jonak ditut nere loreak!...

Mehetegiko Nausia (Suite)

- Zikoitz zar hoiek uzte badute Jainkoak entzuten dituelal;...  
Joanak - Zertako ez ditu/ entsuten ?  
Kattalinek - Bihotza zikoiskerriak usteldua dutelakotz ! Hoiek ez dute ez Jainkoak ez laguna maite ! Sosa bakarrik!.... Hoien Jainko sosa da!....  
Joanak - Guk ere ez diogu ez thu egiten !  
Kattalinek - Ez behar ere ez !.... Bainan guk bederen baginu , chahutzeko gimuske eta ez zoko batean herdoiltzeko uzteko !.... Pirripita bezala bezala sosa biribila egin dute, kurri dadien kurri , eta ez tokiaren gainean egon !.... !Ez delarik !ezda!.... Bainan badelarik, ez balitz bezala bitzitsea !.....  
Joanak - Bazinu zuk zer egin zingzake ?  
Kattalinek - Sosa banu nik ?... Beharko lituzke ba mutchikoak eta zazpi jaunak jausiak eman usu !.... Ontsa jan, ontsa edan, ontsa aphain, ibil harat eta hunat, ontsa jostu !.... Horra !...  
Joanak - Kattalin gaichea ! Maita dirua berarentzat ala emaiten dituen atsegintzentzat maita , ez othe dire biak berdintsu ?.... Ez othe dire biak diruaren sobera paitatzea ?...  
Kattalinek - Ja....ja....ja... ...! Eta gero ere zerf nahi den, horra nik zer egin nezaken ! Zer eginen dudan egun batez, aberatz izanen naizelarik!  
Joanak-Aberatz izaiteko esperantza baituzu ?  
Kattalinek - Dendarik batere gabe !.... Morentzat uzte duzu direla hiru lore simeildu hoien ontasunak ??? Ontsa irabaziak izanen ditut ; segurki! ... Hogoi-ta borts liberetan hemen bainago gosea eta egarrria !.... Adiarazia dibotet bai ostion eta abilki Mehetelegiko chakurraren/ kantua emanez!.... Komprentu othe dute ?... To!.. orhai orhoitzen bainaiz, zer sartzen arizen dei-doia gure Andere Rhodindon ?  
 ( Tiroirra idekitzen du eta delako papera ezkuetan hartzen )  
Joanak - Kattalin paper horren idekitzeko dretchorik ez duzu!....  
Kattalinek - Dretchorik ez denean hartzen da Joanak!....  
Joanak - Gaizki ari zare Kattalin!....  
Kattalinek - Cho !...cho!... Ai !ei !ai !Bihotza tampaka ari zawi !... ( Irakurtzen duela )... "Hau da gure ordenua" : jarri behar naiz, ez nauke chutik!"Hau da gure ordenua" : Ordenuak hau du beltza denen uztea bertzentzat . Beltz hori ihes ezin egin guk ere, ditugun guziak uzten ditugu herriko hamar familia beharrerer. Hoge sehia ez baitugu deus gabe utzi nahi, kattalini uzten diogu azken.....  
Joanak - Azken zer ?  
Kattalinek - Bugrsak ez bertzeak ! (papera aurtikitzen du lurrerat) ... Banoa berehala nore paketaren egiterat! (Aterratzen da kidea saminean diolarik): Bugresak !... Higingarriaki!...  
Joanak - (Papera bildurik) - " Kattalini uzten diogu azken p.....! P. hori zer othe dñe take!.... Ha ! bai! bai!.... Ez da ; hambat aseko ez jostatuko horrekin !... Horra Kattalin Mehetelegiko nausi bainan ez etchekandre .

L. LEON